

Fineco Banka Pribatua Kutxabankek egoitza berria du Donostian

- **Gipuzkoan izan duen hazkunde sendoari eutsi nahi dio, non kudeatutako aktiboak %11 hazi baitira aurten**
- **2019. Urtean gehien hazi den gestora da, eta bere errentagarritasuna Espainiako kudeatzaileen artean goiko mailan kokatu da**

2019ko maiatzaren 28an. Fineco Banka Pribatua Kutxabankek bezeroen arretarako egoitza berria du Donostian. Getaria kaleko 7. zenbakian dago kokatua eta gune berri honetatik lurraldean daramatzen 20 urteetan lorturiko **hazkunde sendoa egonkortu eta indartu** nahi du.

Izan ere, 2019ko lehen hilabeteetan lurralde honetan kudeatzen diren **aktiboen bolumena %11** hazi da, eta Estatu osoan bilakaera onena izan duen **bigarren gestora** izan da, aurten **%8,66ko** hazkundera izan baitu.

Horrez gain, Fineco Banka Pribatua Kutxabankek kudeatzen dituen zorroen **errentagarritasuna** ere Estatuako gestoren artean goiko mailan kokatu da, 2019. Urtean zehar **%5,6ko** bilakaera positiboa izan baitute.

Fineco Banka Pribatua Kutxabankek aurten 35 urte beteko ditu ondareak kudeatzen, eta hazkunde eta hedapen prozesu bizian jarraitzen du. Espezialdutako 65 profesionalen osatutako plantila du, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Madril, Bartzelona eta Kordoban.

Bere produktu ezagunena 'Fon Fineco Gestión' da, 20 urte bete dituen kudeaketa aktiboko errenta aldakorreko fondo mixtoa. Urteurrena dela eta, Finecok datorren ekainaren 7an bezeroekin topaketa egingo du Finecok. Bertan, bezeroek gestorako espezialisten eskutik ezagutu ahal izango dituzte merkatuen iragarpenak eta 2019rako zehaztu diren inbertsio estrategiak, bai eta 'Fon Fineco Gestión'-ek izan duen bilakaera ere.